

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko apirilaren 8a. VIII. urtea. 2.207. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Koldo Ameztoi Ipuin kontalaria

«Kontakizunei lagunduz, dantza batzuk ere izango dira emanaldian»

Euskaraenaren baitan Tolosako kultur etxean izango da gaur 20:30ean; 'Biribilketa' izeneko emanaldian helduentzako ipuinak kontatuko ditu

Antzerkiaren bidez txotxongilo eta ipuin kontagintzaren mundua ezagutu zuen; eta hauek munduan barrena ibiltzeko aukera eman diote o2



Nafarroa Behereko artista, Koldo Ameztoi, Tolosan izango da gaur. HITZA



Adin guztietako herritarrentzat antolatu dute II. Kirol Astea

Gaur hasi eta hilaren 17an amaituko da Irurako Udalak antolatu duen ekimena; egitarauan pilotari profesionalek ere lekua izango dute o5

Londresen dantza egin ondoren, bihar Zaldibian ariko dira Alurrekoak

Ibarrako dantza taldeak hurrengo asteetan hainbat ekitaldi eskainiko ditu, besteak beste, Galizian eta Ibarren, 'Dantzari Txiki eta Alurr Egunean' o7

→ **Narrea Armendarizen erakusketa.** Tolosako Aranburu jauregian 'Perla pinturak' izeneko erakusketa jarri du iruindarrak; sentimendurik onenak nahiz mingarrienak islatzen ditu koloreen bidez o4



NUTRIZIO KONTSULTAK:

Asteartero eta ostegunero eskaintzen dira 'DietaFacil' etxearen eskutik. Laser depilazioa (TAHE). Prezio ezin hobekak.

farmadenda
_parafarmazia

lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@gmail.com



Koldo Ameztoi o Ipuin kontalaria

Koldo Ameztoi ipuin kontalariak Biribilketa emanaldia eskainiko du gaur, Euskaraenearen barruan. 20:30ean izango da, kultur etxean.

«Jendeak lehen pausoa eman behar du, ipuina zer den ikusteko»

Itzea Urkizu

Arruetan (Nafarroa Beherea) jaio zen, 1952an. Antzerkiaren bidez txotxongilo eta ipuin kontagintzaren mundua ezagutu zuen, eta horretan dabil orduz geroztik.

Bihar, Tolosan eskainiko duzu Biribilketa deituriko emanaldia. Kontagintzaren inguruan ibiliko den.

Hasieran, neska gazte batek luma beltz bat aurkituko du, eta luma horrek istorio bat izango du, bere bizia izango du, ez dakigu. Bestalde, neska horrek ere badu bere istorioa, eta istorio hau kontatu egingo dut. Bilaketa batzuen istorioa da. Aspaldidanik baztertu egin ditut horrelako enigma eta misterioa zuten hainbat ipuin, halako kontakizunak lotzeko modua aurkitu behar nuela eta. Azkenean, ipuin horiek halako kate edo soka dantza batean lotzen asmatu dut. Soka dantzan, dantzari neska-mutilak elkarrekin doaz, eta gidari bat dago. Gidari horrek halako biribilketa edo espiral baten bidera eramaten ditu gainontzekoak, eta gero hortik atera egiten dira. Mundu osoan zehar eza gutzen den dantza mota bat da, eta *labirintoaren dantza* edo *karakolaren dantza* bezalako izenak ditu. Beraz, dantza honetako sartu-irten hori sinbolo bezala hartuta, ipuinetako pertsonaiak bata-bestearen ondotik lerrotatu ditut, elkarri eskua emanda. Aipatu bezala, pertsonaia bakoitzak du bere sekretua, eta elkarre-

kin, elkartasuna islatuz, bakoitzaren misterioak asmatuko dituzte pixkanaka. Kontakizunei lagunduz, dantza batzuk ere izango dira.

Nolatan sortu zitzaizun ipuin kontagintzan hasteko grina hori?

Antzerkiaren eta txotxongiloen bitartez hasi nintzen, eta hori kontagintzarekin lotu nuen. Ipuina nahiko gauza librea, eta askatasunean dabilen artea denez, gero aukera izan dut kontalari izanda, musikari, dantzari, kantari, bertsolari, margolari eta abarrek batera ere, lan egiteko. Ipuina bakarrik kontatu izan dut, baina askotan lotu izan dut beste arte batzuekin ere. *Biribilketa* ren kasuan, dantza urratsak ematea frogatu nahi nuen, eta apustu bat izan da.

Munduan zehar aritua zara kontalari lanetan. Zergatik aukeratu zenuek euskara munduan zehar ahozko kontakizunak egiteko? Askok, behar bada, erdara hartuko lukete, komunikazioa errazteko.

Egia esan, bi hizkuntza erabiltzen ditut, erdaraz ere egiten dut; bai euskaraz, bai frantsesez kontatzen ditut ipuinak. Bai, munduan zehar nahikoa ibilia naiz. Quebec-en ibili naiz duela gutxi, eta orain bi aste, Djibuti-n egon nintzen jaialdi batean. Euskaraz ibiltzen naiz hemen, eta frantsesaz baliatzen naiz urruneko lekuetara joaten naizenean; baina beti euskararen eta Euskal Herriaren enbaxadore bezala joaten naiz. Bide



HITZA

batez, esan dezakegu *Biribilketa* emanaldiko ipuin asko bisitaturiko leku horietakoak direla, Errusia edo Latinoamerikakoak, adibidez. Bestalde, euskal ipuinak ere badira artean. Unibertsoatik hartutako ipuinak dira, unibertsoari berriz emateko bezala. **Askotan, ipuinak haur eta gaztetxentzako soilik direla pentsatu ohi dugu, eta badirudi helduen artean zuzen duela hain harrera onik. Bertsolaritzak, adibidez, indar handia hartu du azken urteotan. Zergatik uste duzu kontagintzak edo beste ahozko kontakizun mota batzuek ez dutela halako arrakastarik?**

Egia da, beti sartzan direla txotxongiloak eta ipuinak urteetan horren aurka borrokan gabiltza. «Zatozte lasai, ipuina gauza lasaia da, ez dizue burua hautsiko, ez dira umekeriak» esaten diogu jendeari, baina ez dakigu oso ondo haurrentzako kontua bakarrik ez dela azaltzen. Nire ustez, jendeak lehen urratsa eman behar du, ipuina zer den ikusteko. Horren ondoren badakite zer dagoen, ikustera etortzen dira gehiagotan. Baina jendea behin ere entzuteraz ez bada etortzen, ordea, beti pentsatuko du ume kontu dela. Egunen batean askatu beharko dugu kontu hau. Ez gara kontalari asko baina Hego Euskal

Herrian batzuk mugitzen ari dira. Ez dakit noiz bultzatuko dugun iraultza, noiz erakutsiko diogun mundu osoari zer demontre den arte hau, baina noizbait egin beharko dugu. Bertsolaritzak eman duen pausoa ez dugu emango egun batetik bestera, baina urrats txiki batzuk ematea ondo legoke.

Munduan zehar ezagutu dituzun kulturetan ere gauza bera gertatzen al da ahozko kontakizun moduekin?

Djibuti-n izan naiz, Afrikan Eritrea eta Somalia inguruan, eta ikusi dut han ere berpizten hasi direla pixkanaka, kontalariak biltzen hasi direla. Kontalariak badute gogoia, eta ipuinaren altzorra ere bai. Hirietan kontakizun-

«Hitza eta jendearen arteko harremanen saltsa berpiztu behar ditugu»

nak galdu egin direla diote, baina baserri inguruetan eta herrietan gauza asko omen daude kontatzen. Ameriketako, adibidez, show handiak egiten dituzte kontalariekin, eta milaka ikus-entzule izaten dituzte. Quebec-en berriz, gehiago lantzen dituzte hiriko kondairak, eta mito asmatu berriekin tartekatzen dituzte. Oro har, gauza berriak ezagutzen ari

dira txoko desberdinetan: gauza herrikoiak gaur egungoarekin bat eginda nola kontatu daitezkeen, atzoko ipuinak biharrera pasatzeko zer erantsi dezakegun biltzetan, eta abar. Mugimendua bidean doa, lasai-lasai, eta alde batek gauza ona da bere eritmoan ibiltzea, izan ere, gerta daitezke moda bat izatea eta bat-batean igo den hori, gero bat-batean erortzea. Poliki-poliki goaz beraz, ipuinaren urratsean.

Pauso horiek emateko, hezkuntza sistemak berak testu liburu eta ikus-entzule harago joan, eta ahozko kontakizunari leku zabalagoa eskaini beharko liokeela uste al duzu?

Bai, behar bada bai, noski. Jendearen arteko harremanak ere falta dugu, oraingo gazteak ez baitira kalean hainbeste ibiltzen; telebista zale bilakatu dira, eta gazteak telebistatik mugitzea zaila da. Ez zaie behar duten lekua eskaintzen hitzari eta jendearen arteko harremanari, eta gainera ez da momentu eta leku aproposik aurkitzen ahozko kontakizuna bezalako gauzetarako. Eskolak bere aldetik zerbait egin behar lukeela? Baita, baina familiak ere egin dezake, animazioak ere bai, kultur etxeak, ... Denon gauza da zuzeneko harreman hori berpiztea, eta jendetasuna eta elkartasunaren saltsa hori pixka bat mugitzea.

• tolosa@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AHTren aurkako hiru ekimen antolatu dituzte Aiztondo bailaran apirilean

Aste honetan zundaketa lanak egiteko akten altxamenduak egiten saiatu dira, Hernialde-Zizurkil zatian

Asier Imaz

Abiadura Handiko Trenaren aurkako mugimenduek bat egin dute Aiztondo bailaran, aste honetan gertatua salatzeke. Hilaren 5ean, 6an eta 7an, Hernialde-Zizurkil tarteko akten altxamenduak egiten saiatu dira zundaketak egiteko gobernu ordezkarietatik, aurrez ere saiatu ziren bezala.

Apirilak 5, asteartea

Zizurkilgo lurjabeek udaletxera joateko deialdia jaso zuten. Bakarka deitu zituzten arren, lurjabe bakoitzari elkartasuna azaltzeko, bi kide gehiago sartu ziren. AHTren aurkako kideen esanetan, «hauek idatzi bat aurkeztu zuten euren eskariekin: lurrak behar den bezala markatzea, akten altxamenduak norbere lurretan burutzea, arduradunekin idatzi bat sinatzea (ondoren zerbaitez gertatuz gero konpontzeko), lurrak zein ingurua zegoen bezala uztea...». Udalaren jarrera ere salatu nahi izan dute: «Informazioa ez zabaltzeaz gain, ez da beraien betebeharra».

Apirilak 6 eta 7

Hernialden, hilaren 6an, akten altxamenduak burutu egin zirela azaldu dute proiektuaren aurka, Anoetan ordea ez: «Udaletxera agertu zirenean itxita aurkitu zuten eta etorri bezala, joan egin ziren. Hala eta guztiz ere, zundaketa bat egiten hasi ziren Anoetan, egunean bertan. Badirudi, lehenago Tolosako udalarekin hainbat akordio egiten ari direla bakarka eta ezkatuan». Asteasun atzo gertatua («sines-tezina») izan zela diote AHTren aurkako Aiztondoko kideek: «Alkateak zein idazkari batek, ez zuten inongo berririk. Alkateak ez zekien bertan burutzeokak zire-

nik. Hala eta guztiz ere, badirudi aurrera doazela, nahiz eta, lurjabe beren batek sinatzeko asmorik ez izan».

↓ Hurrengo deialdiak

AIZTONDO BAILARAN

- **Anoeta.** Gaur, hilak 8, plazan elkarretaratzea 19:30ean.
- **Zizurkil.** Aiztondoko AHTren inguruko egoera aztertuko dute. Aiztondoko gazteek antolatuta, hilaren 15ean.
- **Aiztondo.** Hilaren 16an mendimartxa egingo dute, Aiztondoko gazteek antolatuta.

↓ Kirol jarduera

BIHAR, APIRILAK 9

Usabal, goiko kantxa.

- Saskibaloia 09:00etatik 11:30era:
- 1. Infantil neskek: Take Monteku-Bera Bera.
- 2. Infantil neskek: Take Urkizu-Antigua Luberrri.
- Eskubaloia 12:00etan. Kadeteak: Tolosa-Zarautz.
- Saskibaloia 16:00etan. Senior nazionalak: Bide bide-Ardoi.
- Areto futbola 18:00etan. Nazionala: Laskorain-Petronor.
- Usabal, beheko kantxa.**
- Eskola kirola, areto futbola 09:30ean. Kadete neskek.
- Areto futbola 16:00etan, Denak taberna-Powers Rangers.
- Saskibaloia, 18:00etan. Seniorrak: Take Orbela-Mondragon Unibertsitatea.
- Usabal, futbol zelaia.**
- 09:30ean, infantilak: Tolosa CF-Aralar Intxurre.
- 11:00etan, kadete ohorezko maila: Tolosa CF-Aurrera Ondarroa.
- 12:30ean, kadete lehen maila: Tolosa CF-Orioko.
- 15:30ean, kadete emakumeak: Tolosa CF-Oiartzun.
- 17:30ean, jubenilak: Tolosa CF-Koskas.
- Berazubi.**
- 16:30ean, Jubenilen Nazional maila: Tolosa CF-Athletic.
- Beotibar pilotalekua.**
- 10:00etan, esku pilota, afizionatuen partidak.
- 17:00etan, Binakako promozio txapelketa. Olaetxea eta Albisu-Gorka eta Merino II.a.

‘Boga berria’ hilaren 23ra arte zabalik egongo da

Aranburu jauregian dagoen argazki erakusketan emakume arraunlarien lorpenak daude ikusgai

alkatea buru zutela, Tolosaldeko Arraun Klubeko hainbat kide eta Iñaki Arratibel medikua izan ziren bertan. Erakusketa hilaren 23ra arte egongo da zabalik.

TAK eta Kontxako Bandera

Argazki gehienak 2008koak dira, Kontxako I. Emakumezkoen Bandera jokatu zenekoak. Hala eta guztiz ere, TAKeko neskek bere lekua dute; hauen azken 6 urtetako lorpenak edo palmareak erakusten baitira. Klubeko maila guztietako emakume arraunlariak ere agertzen dira.



‘Boga berria’ argazki erakusketaren aurkezpena atzo egin zuten. HITZA

A. Imaz Tolosa

Aranburu jauregian emakume arraunlarien inguruko argazki erakusketa zabaldu zuten martxoaren 26an, *Boga berria* izenarekin. Aurkezpen ekitaldia berriz atzo egin zuten. Jokin Bildarratz

Gutuna

Erasoen aurrean autodefentsa feminista!

Notizia beldurgarriarekin hasi dugu aste hau ere, Yanela Zaru-ma, 22 urteko neska gazte Bur-latarra hilik aurkitu dute Beriain-go La Morea lakuan. Duela bi aste egoera berean agertu zen Amaia Azkue Azpeltian.

Indarkeria kasuak pilatzen doaz eta egoera honen aurrean feministok kezkatuak, nazkatuak eta haserre gaude.

Emakumeon kontra ematen diren eraso guztietan sexismoa inplizituki bada ere beti agertzen da. Hortaz, Yanela emakume izateak bere erailketan eragina izan duela iruditzen zaigu. Hildakoa eta hiltzailearen arteko menpeko harremana ezin aipatu gabe utzi. Emakumeen kontrako indarkeria egiturazkoa den indarkeria da, jendarteak antolatzeke duen ereduak hasi eta gure bizitzako esparru guz-

tietan ematen dena. Patriarkatuak sexuen artean ezartzen dituen botere harremanek ahalbideratzen dute indarkeria sexista; batzuetan zuzenean ematen da, eta besteetan, aldiz, zeharka.

Minduta gaude, emakumeen kontrako indarkeriak ez duelako etenik. Indarkeria mota hau gure gizartean gertatzen den giza eskubideen urraketa larriena da. Emakumeon aurkako indarkeria patriarkatuaren oinarrian dago, eta honek, gizartean emakumeok jasaten dugun mendekotasuna betikotzeko kontrol mekanismo gisa erabiltzen du biolentzia.

Ozen salatu nahi dugu Yanelaren erailketa. Lehen bait lehen gertatu dena argitzeko eskatzen dugu batetik. Bestetik, fa-

milia eta lagunei gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu une gogor hauetan. Emakumeon indarkeriaren aurrean erantzukizuna guztiona da. Jendarte eredu berri bat beharrezkoa dugu.

Azken hilabetetako gertaera larri hauek beldurra zabaldu dute jendartearen. Txikitatik irakatsi digute emakumeoi beldurra sentitzen, honek emakumeok espazio publikoetan lasai eta aske ibiltzea eragozten digu. Beldur honen helburua ez da inondik inora gu babestea, baizik eta izu sentimendua areagotzea eta gu geldirik mantentzea. Ez gaituzte gure gorputzen burujabe egin nahi eta ezta gure bizitzan jabe ere.

Beldurtzen gaituenaren aurrean, erasoen aurrean, autodefentsa feminista eta gure arteko

elkartasuna lantzen jarraituko dugu. Yanelari gertatua, guztioi gertatu zaigula sentitzen dugu-lako.

Indarkeri sexistarik ez! Emakumeon kontrako indarkeriari aurre hartu!

■ **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bilgune Feminista.**

Iragarki laburrak

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesadunek inongo konpromisorik gabe dei dezatela telefono zenbakira: 638 94 46 04 (Gurutze).

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta

ETZI, APIRILAK 10

Usabal, goiko kantxa.

- Areto futbola, 09:15etik 13:00etara.
- 1. Jubenilak: Lauburu-Txalapartea.
- 2. Laskorain C-Zarautz.
- 3. Laskorain B-Zarautz.
- Usabal, futbol zelaia.**
- Alebin eskolarrak, 09:00etatik aurrera.
- Berazubi.**
- 11:30ean, Erregional ohorezko maila: Tolosa CF-R. Uhorek.
- Beotibar pilotalekua.**
- 10:00etan, Zesta punta.

etxeko lanak egiteko; goizez izango litzateke. Interesatuek deitu 943 67 05 70 telefono zenbakira, arratsaldez.

BESTELAKOAK

■ **Txakur txabola.** Anoetan, zatur txabola baten bila nabil. Errosteke edo alokairuan hartzeko. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 680 10 39 59.

Naroa Armendariz Arte Ederretan lizentziatua da, eta Europan zehar ere ibili izan da ikasten. Aranburu jauregian ikusgai dena bezalako erakusketak prestatzen ditu bakarka nahiz beste artista batzuekin.

Maskorrak ezkututzen duen hori

Itzea Urkizu

Emakumezkoa eta genero ikuspegia izango da Aranburu jauregiko ardatza apirilean. Lehenengo solairuan, emakume baten eskuetatik irtendako margoak dira ikusgai. Naroa Armendariz iruindarraren *Perla pinturak* erakusketak, sentimendurik onenak nahiz mingarrienak islatzen ditu, koloreen bidez.


Armendarizek metafora baten bidez izendatu du bere erakusketak: «gauza mingarrien adierazpenetik gauzarik ederrenak sor daitetzeko», dio. Ekialdeko kulturetan

perlen sorrera prozesua metafora gisa erabiltzen dute; izan ere, perlak, itsas maskorraren gorputz bigunaren barruan sartutako partikula arrotz batek sorturiko erreakzio baten ondorioz sortzen dira. Maskorrek, erreakzio hau, babes gisa erabiltzen dute erasoen aurrean. Margolariak berak ere, ere gauza bera egin du: hasiera batean mingarriak diren sentimenduetatik abiatuz, perlen antzeko pintura ederrak sortu ditu. Zirrara eta emozio txarrenetatik ateratako kolore eta marrazkiek, dute.

Marra deformatuak, erritmo

desberdinak eta koloreen indartze eta ahultzeak dira koadroetako oinarri, eta espresionismo abstraktuaren askatasunaz baliatzen da Armendariz. Aipaturiko sentimenduez gain, bestalde, giza gorputzaren mugimenduak ere inspirazio iturri izan ditu artista iruindarrak.

Adituen arabera, espresionismo abstraktuak mugimendu eta pintzelkada bortitzak eman ohi ditu, baina Naroa Armendarizek lan berritzaileak aurkezten ditu *Perla pinturak* erakusketan, izaera urratzaile hori alde batera utzi, eta artearen bidez bizipen jostagarriagoak helaraziz.



GABARRE
BAR - TABERNA
RON BARCELÓ
festa

▶ Apirilak 9 LARUNBATA • 23:00etatik 02:30era ◀
San Frantzisko kalea 26 • **TOLOSA**

IMH Instituto de Maquina Herritariek
ingeniaritza
imh

Heziketa Zikloak /
Txandakako Ingeniaritza

Ate irekiak:
APIRILaren 16an
(11:00etan)

Etortzeko delitu
943744132 telefonora
edo apunta zaitez
www.imh.es orrian

Artisau Jogurtak

Mahala

Hurrengo egunetan, kirola eginez edota ikusiz gozatzeko aukera izango da

Era guztietako kirola egiteko aukera izango dute irurarrek; herritar guztiak egokitu dute egitaraua

Eneritz Maiz Irura

Irurako Udalak II. Kirol Astea antolatu du. Gaur hasi eta hilaren 17a bitartean, kirol ezberdinak praktikatu edota ikusteko aukera izango da: Xare eta xake partidak, irristaketa ikastaroa, jubilatuen ibilaldi neurtua, mahai tenisa, mendi irteera, herri kirolak, ... bada non aukeratua. Eta haur, gazte eta helduek, guztiak parte hartzeko moduko egitaraua prestatu dute.

Izen handiko pilotariak

Irurako frontoian, pilota jaialdia izango da hilaren 15ean, ostiralean. 19:15ean, lehenengo lau t'erdiko partidak jokatu dute Bengoetxea VII.ak eta Chafreek.

↓ Irurako II. Kirol Astea

GAUR

■ **Xare partidak.** 18:00etan, trinketean.

APIRILAK 10, IGANDEA

■ **Xare partidak.** Herriko plazan.

APIRILAK 11, ASTELEHENA

■ **Trinketea berritzeko proiektuaren aurkezpena.** 19:00etan udaletxeko batzar aretoan.

APIRILAK 12, ASTEARTEA

■ **Irristaketa ikastaroa.** Frontoian egingo dute: 17:30etik 19:00etara haur eta gaztetxoak. Eta 19:00etatik 20:30era, helduak.



Herri krosean izena ematea doan izango da. SARA GOMEZ

Jarraian, Eskuz Binakako partida jokatu dute, Capellan-Lasa III.a bikoteak, Koka eta Eulateren aurka. Sarrera doan izango da. Pilota partidaren ondoren, udalak, gazta dastaketa eskainiko du gerturazten diren guztiak.

II. Kros Herrikoia

Hilaren 17an, bailarako II. Kros Herrikoia egingo dute. Gaztetxoek eta helduek parte hartzeko au-

kerak izango dute. 10:30ean, aurrebenjaminak, benjaminak, alebina eta infantilak aterako dira. Eta hurrenez hurren, 312 metro, 625 metro, 1.250 metro eta 2.500 metro egin beharko dituzte.

Kadeteek eta helduek berriz, 11:30ean izango dute lasterketa, eta 5.000 metro egin beharko dituzte korrika. Izena ematea doan izango da, eta egunean bertan edota kirolakirura@gmail.com helbidera idatziz eman daiteke.

ka, Capellan-Eulate, Koka-Lasa III.aren aurka. Sarrera: doan izango da.

■ **Ondoren.** Gazta dastaketa.

APIRILAK 16, LARUNBATA

■ **Mendi irteera.** 10:00etan herriko plazatik abiatuta Loatzo-Uzturre ibilbidea egingo dute. Ondoren, bazkaria Zaharretxean egingo dute.

■ **Herri kirolak.** 17:30ean, sokatira ikuskizuna, eta haurrentzat herri kirolak (Xiba), izango dira, frontoian.

APIRILAK 17, IGANDEA

■ **II. Kros Herrikoia.** 10:30ean haurrak, 11:30ean, kadeteak eta helduak (5.000 metro).

→ Laburrak

Festak antolatzeko bilera egingo dute asteartean

ANOETA › Herriko festak antolatzeko bilera, asteartean, hilaren 12an egingo dute. Udaletxean 19:00etan elkartuko dira, eta jai batzordeak herritar guztiak parte hartzera deitzen diete.

Ikastolak matrikula egin nahi dutenei gonbipena

TOLOSA › Laskorain Ikastolak, datorren ikasturterako matrikula egin nahi dutenei, hilaren 13an, 17:00etan egingo duten ate irekien aurkezpenarako, gonbidapena luzatzen die.

Txirindulari proba dela eta, errepideak itxita

VILLABONA › Bihar, txirindulari proba bat egingo da Villabonan, eta bertan gaztetxoek parte hartuko dute. Ibilbidea, Kale Berria, Nagusia eta Txermin inguruan izango da. Eta 16:00etatik 18:00etara izango da. Ondorioz, Kale Berria trafikoa moztuko da, eta autobus geltokiak ere moldatu egingo dira: Donostiara joateko, kiroldegian eta Txermingo biribilgunean; eta Tolosara joateko, Txermingo biribilgunean eta Arroa auzoan hartu beharko da. Era berean, Zubimusu ere moztu egingo dute, beraz, ezinongo da Zizurkildik Villabona aldera pasa, aipatutako orduetarako.



Iaz Villabonan jokatu zen kanporaketa. HITZA

40 dantzarien lehia Auresku eta Soinu Zahar Txapelketan

Bihar 16:30etik aurrera Gurea aretoan izango da; Oinkari Dantza taldeko 18 dantzariak parte hartuko dute

Bertan Euskal Herriko 40 dantzari gaztetxoek parte hartuko dute, eta horietatik asko eskualdekoak izango dira. Oinkari dantza taldeko 18 dantzari dira.

Txapelketa hau Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrek antolatzen duen Ligaren kanporaketa da. Finala ospatu aurretiko azken kanporaketa izanik, ez da emozio faltarik izango Gurea Zinemaren. Sarrera doan izango da, beraz, atek zabilik egingo dira ikustera joan nahi duenarentzat.

E. Maiz Amasa-Villabona

Larunbatean, hilak 9, Villabonako Auresku eta Soinu Zahar Txapelketa ospatuko da. Gurea Zinemaren izango da 16:30etik aurrera.



saridunak



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Apirilak 9 • Larunbata
20:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Unicaja
saskibalo partida

• Alberto Sukia (Ibarra)

sarrerak eskuratzeko Tolosako HITZAKO egoitzatik pasa

HITZAK bi harpidedunentzat **sarrera pare** du

Apirilak 15 • Ostirala
22:30ean
Tolosako Leidorren

Oinkari
dantza taldearen
Ari du ikuskizuna

• Patxi Legarra (Tolosa) • Aloña Otermin (Anoeta)

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue



harpidedunak
TXOKA hitza

Korrikaren inguruko jarduerak asteburuan

Datorren asteazkenean iritsiko da Korrika eskualdera; aurretik, korrikazaleak elkartzeko dira hainbat herritan

I. Garcia

Korrika datorren asteazkenean iritsiko da eskualdera, baina aurretik hainbat herritan euskaren aldeko ekimena giroten ariko dira. Asteburuan ondorengo herrietan egingo dituzte ekital-

↓ Egitarauak

ADUNA

■ **Apirilak 8, gaur.** Korrika Kulturalaren barruan, 18:00etan emanaldi berezia egingo dute. Loatzo musika eskolak antolatuta. Dultzaineroen kalejira egingo dute eta ekitaldi nagusia herriko kioskoan izango da. 20:30ean bertso afaria egingo dute Uztartza aterpetxean.

ALEGIA

■ **Apirilak 10, igandea.** Hamaketakoa herriko plazan, 12:00etan. Herritarrek eramandako tortilla, pintxo edo gozoak eskainiko dira bertan. Udalak jendea animatzen dio jateko eramatera.

ALTZO

■ **Apirilak 10, igandea.** Plazan elkartzeko dira, 12:00etan. Hamaketakoa izango da: tortilla pintxoak, txorizoa eta edariak. Ateratzen den dirua Korrikarako izango da. Ondoren, toka txapelketa egingo dute.

AMEZKETA

■ **Apirilak 10, igandea.** Plazan elkartzeko dira, 12:30etik aurrera, Korrikaren aldeko goia egiteko. Materiala salgai izango dute,

diak: Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso eta Orendainen.

Bihar, esaterako, Anoetan egun guztian antolatuta dituzte ekitaldiak. Adunan Korrika Kulturalaren barruan egingo dituzte musika emanaldia eta bertso afaria. Igandean hamaketakoa antolatuta dute hiru herritan: Alegian, Altzon eta Amezketan. Azkenik, Korrika Txikiak egingo dituzte bi herritan: Areson, gaur arratsaldean egingo dute, eta Orendainen igande arratsaldean elkartzeko dira.

eta hamaketakoa egongo da. Ondoren trikipotea egingo dute.

ANOETA

■ **Apirilak 9, bihar.** 11:00etan, DVD emanaldi udaletxeko arteo nagusian. Goiz osoan Korrikako materiala salgai izango dute. 14:00etan, Sarasola sagardotegian bazkaria egingo dute. 18:00etan, trikipotea. 23:30ean, kontzertua Anoetako Gaztetxean, Sermond's eta Luz de putas taldeekin.

ARESO

■ **Apirilak 8, gaur.** Korrika Txikia egingo dute eskolako haurrek. 15:00etan eskolatik aterako dira. Ondoren haurrei merienda emango diote.

ORENDAIN

■ **Apirilak 10, igandea.** Korrika Txikia antolatu du ezker abertzaleak herritarren laguntzarekin. 19:00etan hasiko da. Herriko plazatik Zaragoza baserriko bidegurutzera, hortik Orendainera joateko bidegurutzera, eta berriz herriko plazara egingo dute ibilbidea. Ondoren, argazkia aterako dute partehartzailerak guztiek. Gero afaria egingo dute.

Zazpiturriko zentralak bere burua ordaintzea lortu du zazpi urte baino lehen

Zentrala martxan jartzeko inbertsioa ordaindu ondoren, egun azpiegituraren %45a du udalak

Imanol Garcia Amezketa

Zazpiturriko zentrala berriz martxan jartzeko egindako inbertsioa amortizatuta ahal izan da zazpi urte baino lehen. Aurreko urtean ere arazorik gabe funtzionatu zuen eta 174.000 euroko etekina izan zuen. Amezketako Udalak 25.000 eurotik gorako diru sarre-rak jaso zituen iazko produkzio horregatik.

Behin inbertsioa amortizatuta, Amezketak Zazpiturriko duen parte-hartzea handitu egin da. Horrela, Amezketak %45a izango du, Tolosak beste hainbeste, eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) falta den %10a, mantenu gastuei aurre egiteko. Urte hone-tatik aurrera 50.000 euro inguru-ko irabaziaz jasotzea espero du Amezketako Udalak. Zentralak ekoizten duen energia Iberdrola enpresari saltzen zaio.

Zazpiturriko zentralari buruzko informazioa azken osoko bilkuran eman zuen udalak. Beste gaietako bat Eusko Jaurlaritzako Erein egitasmoa diru laguntzak izan ziren. Herri Zentrarako diru laguntza eskaria egina zegoen eta erantzuna iritsi da Eusko Jaurlaritzatik. 192.000 euro emango

ditu, proiektuaren %40a. Liburutegia, KZgunea eta balio anitzeko gelak osatzeko erabiliko da. Hurrengo urtean eguneko zentroa eta etxebizitza tutelatuak osatzeko Foru Aldundiari diru laguntza eskaria egiten saiatuko da udala.

Tolomendiri egindako diru laguntzen eskariak ez du erantzun berdina izan. Baserri bide batzuk asfaltatzeko eta gehienetan postontziak jartzeko laguntza eskaria egin zion udalak Tolomendiri. Landa garapenerako agentziatik adierazi dutenez, eskari hori ezin izan da sartu lehentasunezko proiektuetan, eta horregatik ez dute izango laguntzarik aurtan. Diru murrizketen ondoren, 2012ko urtean eskaria sartzeko asmoa azaldu dute Tolomenditik.

Osoko bilkuran jorratu zen beste gai bat azken lau urteetako aurrekontuen arteko alderaketa izan zen. Jesus Iñurrita alkateak 2009ko eta 2010eko zorraren arteko aldea nabarmendu zuen: «Herri Zentroa eraikitzeko Juan Lopez-enea erostean, 2009an, zorpetu behar izan zen eta 651.000 euroko zorrarekin geratu ginen. 2010 bukaera parte bat amortizatu da, eta orain zorra 528.000 eurokoa da».

Bi mozio onartu zituzten

Osoko bilkuran bi mozio onartu ziren. Alde batetik Tolosaldea Garatzen erakundeak Tolosaldeko osasun sareari buruz aurkeztutakoa. Bestetik, Lurdes Larreta zinegotziak aurkeztutakoa, *Inko-*

munkaziorik ez! Torturarik ez! izenekoa.

Osasun sareari buruzko mozioan zehazten denez, «Tolosaldeko udalak aldarrikatzen dute, Osakidetza osasun sare publikoko ambulatorioan, eskualdeko biztanle kopuruari dagokion moduan, espezialitate-zerbitzuen kontsulta guztiak bermatu ditza-la, kendu dituztenak berriro eskainiz».

Bestalde, mozioak «Tolosaldeko eskualde-ospitale publiko bat ezartzearen beharra» nabarmentzen du, «osasun-sare publikoak, eskualdean duen hutsune nabarmen hau konponduz».

Inkomunikazioari eta torturari buruzko mozioak dioenez, «tortura kasu guztietan amaitzeko existentzia egiten diegu ardura zuzen-nak dituzten erakunde, alderdi politiko eta polizia gorpuzteiz».

Torturaren amaiera inkomunikazioaren amaierarekin lotzen du mozioak. «Inkomunikazioaren amaizteko eskaera argia egiten dugu, besteak beste, NBE-ko hainbat erretelorek egindako gomendioei jarraiki», dio onartutako testuak. Torturaren «erreko-nozimendua» beharrezkoa ikusten du mozioak. «Bide horretan, torturatuak izan diren herritarrei beharrezko laguntza eta asistentzia emateko konpromisoa» hartzen dute mozioa onartu dutenek. Horrez gain, torturaren aurka burutzen diren ekimenen babesa emateko konpromisoa hartzen dute.

Irudia



EAJ-K HIRU ALKATEGAI AURKEZTU DITU

Villabonako, Zizurkilgo eta Asteasuako alkategai aurkeztu ditu EAJK. Villabonan Nagore Puyadena izango da (argazkian, ezkerretik hugarrena). Zizurkilgo egungo alkatea aurkeztuko da, Marian Lazkano (ezkerretik lehenengoa). Astea-

sun, egun zinegotzia den Luke Uribe-Etxebarria izango da alkategai (ezkerretik laugarrena). Villabonako Batzokian egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta bertan izan zen Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko lehendakaria. i.g.

 FORMAZIO IKASTAROK (Langileentzat) (DOHAJINIK)				
IKASTAROK	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA	
CNC fresatzeko makinen prestaketa eta programazioa.FAGOR	46	2011-05-04	Asteleheneik ostegunera 18:00etatik 21:00etara	
Datu baseen lanketa. ACCESS	50	2011-05-04		
Ingelera teknika	40	2011-05-04		
Automatizazio industrialia (MEKANIKOENTZAT EGOKIA)	40	2011-05-04		
KZ eta KAKo makina elektrikoak. (Instalazio EOLIKOak)	40	2011-05-09		
Aire girotko instalazioak muntatzea	40	2011-05-09		
Ordenagailua. Ingurunea eta mantentzea	40	2011-05-09		
CAD-CAM, Abiadura handiko mekanizaketa.Unigraphics	40	2011-05-09		
Lan taldeen kudeaketa. (Adimen emozionala)	40	2011-05-09		
Informazioa: Tel.: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com Web: www.tolosaldea.com				

→ Laburrak

Txaramako jaiak antolatzeko bilera

LEABURU-TXARAMA ▶ Txaramako jaiak gerturatzen ari direla eta, Txaramako Jai Batzordeak bilera egingo du, hilaren 12an, asteartean. Horretarako, 19:30ean Txaramako elkarteak elkartuko dira. Herritar guztiak gonbidatuta daude.

Berto bazkaria egingo dute Berrobin

BERROBI ▶ Berrobiko zenbait herritarrek bertso bazkaria antolatu dute maiatzaren 7rako. Bazkaria Bide Ona elkarteak egingo dute, eta bertan izango dira Unai Muñoa, Ander Lizarralde eta Bixente Gorostidi bertsoariak. Herritar guztiak gonbidatuta daude. Izena emateko epea apirilaren 17an amaituko da, eta bazkarira joan nahi dutenek herriko dendetan banatu diren listetan eman behar dute izena.

Udal musika eskolako ikasleen kontzertua

TOLOSA ▶ Datorren astelehenean, apirilaren 11n, Eduardo Mocoora udal musika eskolako ikasleek, 2. hiruhilabeteko kontzertua eskainiko dute. Bertan, ondorengo instrumentua jotzen duten ikasleek parte hartuko dute: pianoa, flauta, akordeoia, klarinetea, saxoa, txeloa, oboea eta perkusioa. Kontzertua musika eskolako areto nagusian izango da, 19:15ean. Musika gustuko duen oro kontzertura gonbidatuta dago.



Alurr Dantza Taldekoak, Londresen eskaini zuten emanaldian. HITZA

Alurr Londresen izan da

Hurrengo asteetan ere hainbat emanaldi eskainiko ditu dantza taldeak: Zaldibian, Galizian eta Ibarrran

Maier Ugartemendia Ibarra

Pasa den larunbatean Londresen izan ziren Alurr Dantza Taldekoak. Datozen asteetan ere ez dute geldirik egoteko asmorik, eta hainbat emanaldi prestatu dituzte Zaldibian, Galizian eta Ibarrran.

Alurrekoek Londreseko Euskal Etxearen gonbita jaso zuten dantza emanaldi bat egitera joateko. Gonbita onartu egin zuten, eta bertara joan ziren taldeko zortzi dantzari eta hainbat musikaririk. Ordu beteko emanaldia eskaini zuten, Londreseko Euskal Etxeak berak alokatu zuten areto batean. Besteak beste

dantza hauek egin zituzten: *Xuletxinoa*, *Polkak*, *Agurra*, *Fandangoa*, *Arim arina*, eta *Banakoa*. Alurr Dantza Taldekoen hitzetan ikus-entzule «ugari» bildu zen emanaldian. Gainera, «oso harre-ona» jaso zuten dantzariak eta musikariak, eta «txalo bero ugari» eskaini zizkieten.

Hurrengo emanaldiak

Hurrengo asteetan ere hainbat emanaldi eskainiko dituzte Alurrekoek. Bihar, esate baterako, Alurr taldeko 12-16 urte bitarteko 75 dantzari ordubeteko emanaldia eskainiko dute Zaldibian. 19:00etatik aurrera, pilotalekuan eta kaleetan ariko dira dantzan bertako dantzariekin batera. Eskainiko dituzten dantzen artean daude: *Fandangoa*, *Arim arina*, *Ezpata dantza*, *Banakoa*, *Gipuzkoano*, *Agurra*, eta baita aurten prestatutako koreografia berri batzuk ere.

Pazko astean Galiziako Chantada herrira joango dira dantzariak. Apirilaren 26tik 31ra, 25 dantzari gazte, 4 musikari eta 4 begirale joango dira bertara. Antolatzaileek eskatuta dantza tradizionalak eskainiko dituzte. Gainera, euskal musikaren, dantzaren, arroparen eta musika tresnen historia ere erakutsiko diete Alurrekoek. Izan ere, honako esperientzia hau kultur truke bat ere izango da, eta «oso baliagarria izango da bi kulturek elkar ezagutzeko».

Maiatzaren 28an, berriz, Dantzari Txiki eta Alurr eguna izango da Ibarrran. Goizean, Ibarrrako zein Euskal Herri osoko dantzariak parte hartuko dute egun honetan. Arratsaldean umeentzako festa izango da, musika eta dantzekin. Gauean, Ibarrrako plazan emanaldia eskainiko dute, eta dantza eskolako urte guztiko lana erakutsiko du Alurrek.

Pellejero, Olano, Saralegi eta Agirre izango dira Banakako Txapelketan

Hirugarren jardunaldia Sodupen jokatu da, 19:30ean; laugarrena, berriz, Izarran izango da, 12:30ean

M. U.

Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketako bi jardunaldi berri izango dira asteburu honetan, eta bertan izango dira Pellejero are-soarra, Saralegi eta Olano leitzar-arak, eta Agirre ibartarra.

Asteburu honetako lehenengo jardunaldia bihar izango da, 19:30ean Sodupeko pilotalekuan. Aurreko asteburuko bi jardunaldietan bezala, 11 aizkolarik parte hartuko dute asteburu honetako saioetan ere. Horietako bi aurreko jardunaldietako irabazleak izango dira. Lehenengo pi postuetan geratzen direnak izango dute aukera hurrengo jardunaldietan aritzeko. Sodupen izango diren aizkolarien artean daude eskualdeko hiru aizkolarik: Asier Pellejero aresoarra, Eneko Saralegi leitzarra, eta Iñaki Agirre ibartarra.

Asteburuko bigarren jardunaldia, eta txapelketako laugarrena, Arabako Izarra herrian jokatu da. Igandean, 12:30ean hasiko dira lanean aizkolaria. Bertan beste 11 aizkolarik hartuko dute parte. 9 lehenengo aldiz ariko dira, eta beste bi aurreko jardunaldietako irabazleak izango dira. Jardunaldi honetan ariko diren aizkolarien artean dago Arkaitz Olano leitzarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibaralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Ekitaldi ugari egiten dituzte Samiegon, irakurzaletasuna bultzatzeko. HITZA

Samaniegon XI. Irakurketa Maratoia egingo dute, gaur

Astelehenetik hainbat ekitaldi egiten ari dira pasa den larunbateko Haur Liburuaren egunaren harira

Azken ekitaldiak, dena den, gaur izango dira. Goizean goizetik eguerdira bitarte XI. Irakurketa Maratoia egingo dute, eta hasiera Bixente Gorostidi bertsoariak eta Tolosako haur liburutegiko arduraduna den Susana Larrek emango die. Era berean, Samaniegoko arduradunek, urtero bezala hainbat hizkuntza entzuteko aukera ere izango dela argitu dute: euskara, gaztelania, ingelera, flandiara, portugesa, arabiera, fang-a, thai-a, latina, errumaniera...

Dominen banaketa

Maratoiarekin batera, gaur, irakurketa kanpainan irabazitako dominak banatuko dituzte gelak, eta irakurri ondoren piruleta bana emango zaie ikasleei. Liburu markatzaileak ere banatuko dizkiete 3. mailako gazteei.

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Samaniego ikastetxean ekitaldi ugari egiten ari dira Literatur Astearen barruan, pasa den larunbateko Haur Liburuaren egunaren harira.

Ikastetxeak orain 11 urte antolatzen du ekimena eta «ikasturtean irakurzaletasuna bultzatzeko egindako ekimenen bilgune» izaten da.

Aipatu bezala ekitaldi ugari izan dituzte azken egun hauetan, ipuin kontaketa eta partaideei elkarrizketak, besteren artean.

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Gaur 20:30ean, kultur etxean, Koldo Ameztoti ipuin kontalariaren *Biribilketa* izeneko emanaldia Euskaraenearen barruan.
- **Aduna.** Loatzo musika eskolako dultzaineroek emanaldia eskainiko dute gaur, 18:00etan plazan.
- **Tolosa.** Gaur 19:30ean Topic-en Rosa Maria Calafen *Japonia, ez aurrera ez atzera geratu den potentziak nortasuna bilatzen du.* *Harmoniatik lehiakortasunera* hitzaldia Amalur jardunaldien barruan. Hitzaldia gaztelaniaz izango da.
- **Leitza.** Gaur 21:00etatik aurrera ez ohiko udalbatzaren bilkura egingo dute.
- **Ibarra.** Gaur Makala dj-aren eta Zigor dj-aren emanaldia izango da Gaztetxean. 20:30ean afari herrikoa izango da Xepla elkartean, eta dj saioa ondoren izango da.
- **Tolosa.** Bihar 10:00etan Topic-en shodo idazkera japoniarren tailerra Amalur jardunaldien barruan.
- **Tolosa.** Bihar 11:30ean

Topic-en ikebana lore artearen tailerra Amalur jardunaldien barruan.

- **Tolosa.** Bihar 18:00etan Zerkausian kenpo-kai borroka arte japoniarren erakustaldia Amalur jardunaldien barruan.
- **Irura.** Bihar 15:00etatik aurrera IV. Nafarri Rallysprinta. Irteera Alegian izango da eta helmuga, Amezketa.
- **Ibarra.** Etzi, igandea, Haitzetan Raju mendi elkaratek eta Bai Euskal Herriarik antolatutako mendi irteera izango da. 09:30ean irtengo dira Ibarra plazaetik Gaztelura joateko.
- **Villabona.** Loatzo musika eskolako biolontxelo ikasleek emanaldia eskainiko dute astelehenean, hilak 11, musika eskolan 18:00etatik aurrera.
- **Irura.** Loatzoko flauta ikasleek emanaldia eskainiko dute astelehenean, hilak 11, 18:00etan musika eskolan.

ANTZERKIA

- **Villabona.** *Oteiza ezberdin gizartea* antzezlan gaur, 22:30ean Gurea zine aretoan. Sarrerak 5 euro balio du, baina gazte txartela aurkeztuz gero, 3.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Bonsai eta suiseki erakusketak bihar bitarte Topic-en Amalur jardunaldien barruan.
- **Tolosa.** *Boga Berria* emakume arraunlariei buruzko argazkiak Aranburu jauregian apirilaren 23a bitarte.
- **Tolosa.** *Colorin eta bere txongiloak* Topic-en ekaina bitarte.

Agurrak



Zorionak!
Arkaitz Agirretxe Aroena (Altsasu). Gaur 7 urte. Muxu handi bat familia eta aiton-amonen partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20.

Telefonoa:
943 67 60 13.

- **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta irtizien erantzukizunik.



sariduna

HITZAK harpidedunen artean **Korrikaren lekukoa eramatea** zozketatu du

• **Ainara Apeztexea (Ibarra)**

Tolosan • Apirilak 13 • asteazkena

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZAK kilometro bat erosiko du aurten ere Korrikan. Lekukoa eramatea harpidedunen artean zozketatu dugu.

